



Basoan barrena jarraitu genion lapurrari.
Basoan barrena jarraiki gintzaizkion lapurrari.





goi-mailako
erregistroa

Basoan barrena jarraitu **genion** lapurrari.
Basoan barrena jarraiki **gintzaizkion** lapurrari. (Goi.)

* Basoan barrena jarraitu **genuen** lapurra.

JARRAITU

Jarraitzen dio

● Norbaiten edo zerbaiten ondotik joatea edo ibiltzea.

- Printzesek erreginari jarraitzen diote.
- Begiez jarraitu zion aitari.
- Zurezko zubitxo bat pasatzen dut eta bideari jarraitzen diot.

JARRAITU

Jarraitzen dio

● Arauak, legeak... betetzea.

- Haren gomendio*ei jarraitu diegu* hitzez hitz.
- Protokolo jakin batzue*ei jarraitzen diegu* ehun horietatik zelula amak bakartzeko.
- Propagandaren arabera, antikomunistaren seinalea zen iraganeko tradizio*ei jarraitzea*.
- Gazte jendeak azken modako legear*i jarraitzen dio*.
- Erraldoia enperadoreari bidera atera, eta, zalduneriaren arau*ei jarraituz*, erronka egin zion.

JARRAITU

Jarraitzen dio

● Zerbait beste zerbaiten ondotik etorri edo gertatzea.

- Bizia**ri** heriotzak jarraitzen **dio**.
- Gerratear**ri** bakeak jarraitzen **dio**.
- Gaitz handi bati**i** beste handiago batek jarraitzen **dio**.
- Ekaitza**ri** baretasunak jarraitzen **dio**.

JARRAITU

Jarraitzen du

■ Egoera edo jarrera jakin batean irautea.

- ◆ Oso egoskorra da eta bere horretan **jarraitzen du**.
- ◆ Pou anaiek Patagonian **jarraitzen dute**.
- ◆ Aurten ere gure klubean pozik **jarraitzen dugu**.
- ◆ Oraindik bizirik **jarraitzen zuen** umetako amets zaharrak.
- ◆ Mutilzahar **jarraitzen du**.
- ◆ Ezkongai **jarraitzen du**.
- ◆ Liburu artean **jarraitu** nahi **dut**.
- ◆ Espaloian aurrera **jarraitu zuen** Dionisiok, beste bien atzetik.

JARRAITU

Jarraitzen du

● Jarduera jakin batean irautea.

- ◆ Unibertsitatea bukatutakoan, ikasten jarraituko dugu.
- ◆ Teresak irakurtzen jarraitzen du.
- ◆ Ahapeka hizketan jarraitu zuen neskak, baina tonua aldaturik.

JARRAITU

Jarraitzen du

■ Zerbaiten jarraipena egitea.

- ◆ Arreta handiz **jarraitu ditut** hauteskundeen emaitzak.
- ◆ Bizkaiko suhiltzaileen prestakuntza-entrenamenduak **jarraitu ahal izango dituzte** ikus-entzuleek.
- ◆ Erdialdeko Amerikako eta Hegoafrikako gatazkak gertutik **jarraitu ditu** Ruaneek.

JARRAITU

Izenondo gisa

otoitz **jarraitu**a.

* otoitz **jarra**ia

korronte **jarraitu**a

* Korronte **jarra**ia

ebaluazio **jarraitu**a

* ebaluazio **jarra**ia

⊕ Izen eratorria: **jarraitu**tasun

* **jarra**itasun

JARRAITU

Adberbio gisa

📖 Ibaiari **jarraituz** iritsi ziren portura.

📖 Ibaiari **jarraikiz** iritsi ziren portura.

* Ibaiari **jarraiki** iritsi ziren portura.